



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

nende dago **Bilbon** bertan gauzatu zaba  
kionez dago **Bilbon** izan hizbuna  
aur **euskara** garrantzi  
errian zeurea da hitza direlako  
.ena eragin



≡ MENU

2

## “LaPublika Irrati Sinposiuma”, Donostian



Urriaren 28an, **consonnik** zuzendu eta Donostia 2016 eta Tabakalerak ekoiztutako nazioarteko sinposium bat egingo da Donostian: *LaPublika Irrati Sinposiuma*. Ekimenaren barruan performanceak, kontzertuak, solasaldiak eta soinu-instalazioak egingo dira, “eragiten diguten gai publikoen gainean arteak nola eragiten duen” hausnartzeko helburuarekin.

Ostiralean, 2014an abiatutako esparru publikoari buruzko ikerketa artistikoko *LaPublika* laborategia amaituko da, eta une hori aprobetxatuz, jaialdi-sinposium bat antolatu da, Tabakalera Kultur Garaikidearen Nazioarteko Zentroan eta Dabadaba aretoan.

Tabakalerako patioa irrati-areto bilakatuko da Alex Tarraguel eszenografo katalanaren gidaritzapean. Bertan, arteari buruzko hausnarketa bultzatzen duten ekintzak ere egingo dira, hala nola elkarrizketak, eztabaidak, aurkezpenak, ekintza performatiboagoak, esku-hartze artistikoak, performanceak eta kontzertuak.

Esate baterako, Rosalyn Deutsche New Yorkeko teorialaria eta Jaime Iregui artista kolonbiarra solasean arituko dira; edota Niño de Elche flamenko-kantari ezohikoa eta Belen Gopegui idazlea; bai eta Daniel García Andujar artista eta WHW kuradore-taldeko kideak ere.

Sinposiumaren gaiarekin lotutako lanak aurkeztuko dira. Hala, Orea taldeak, EHUko Arte Ederren Fakultatekoak, identitateen eta talde-memoriaren inguruko *Cómo tu abuela cambió tu vida* lana aurkeztuko du.

Ekoizpen artistikorik ere izango da: Sangre Fucsia podcast feministakoek *El feminismo creativo tenía un precio* irrati-magazina eramango dute; Okela sormen-espazioak, berriz, *LaPribada* sortu du eta hiru emakume artista bilduko ditu (Olatz Otalora, Sahatsa Jauregui eta Gentz del Valle); Sra. Polaroiskak ere lan bat aurkeztuko du, *CHORUS- Y el coro concluye...*; Aziza Brahim musikari sahararra hizketan eta kantuan arituko da; Oier Iruretagoiena artistak *Aldez kontra* soinu-instalazioa egingo du; eta azkenik, Societat Doctor Alonso eta Moared Danza taldeek bisita-paseo bat eskainiko dute.

Gauean, Dabadaba kontzertu-aretoan, musikaz gozatzeko aukera egongo da Mutamassi, Michelle Terand, Los Torreznos eta Tremenda Jauria taldeen soinuekin.

Informazio guztia: [LaPublika](#)

[LaPublika-k bidalita](#) // 2016-10-27 · 11:28:45

Bidali zure albistea >>